

## TXOKOLATE LANTEGIAK

1890. urtearen aurretik txokolatearen garrantzia ez zen galdu Oñatin eta gero eta jende gehiago hasi zen txokolatea lantzen. Oñatirentzat aberastasun iturri handia zen txokolatearena. Horregatik 1890. urtean, Oñatira argindarra etorri zenean txokolate lantegi pila bat egon zen. Ondoren zerrenda bat ikusiko duzue Oñatiko txokolateria ezagunenekin. Izenaz gain, non zegoen ere ikusten da bertan:

### “Guereca txokolateak”

- Kale Zaharrean  
(Institutuan lantegia zegoen eta denda Kale Zaharrean).
- Gabina Basterrica zen jabea. Emakume ekintzaila izan zen eta oso ausarta.



### “Onena Txokolateak”

- Mizke dagoen lekuan.

### “Garaicoechea Txokolateak”

- Oñati Taberna dagoen lekuan.



### “Maiztegi Txokolateak”

- Lehenengo lantegia Aranburu bitxiak dagoen lekuan zegoen (Lantzen dendaren ondoan). Bigarren lantegia Olakua sarrerako etxe ilunak dauden lekuan zegoen.

### “Orbea Txokolateak” -

- Gaur egungo Txokolateixia dagoen lekuan.



### “Loyola Txokolateak”

- Kasablankan zegoen.



“**Galdos Txokolateak**” - Goiena jatetxea dagoen lekuan.

“**Leturia Txokolateak**” - Kutxa bankua dagoen lekuan.

“**Azurmendi Txokolateak**” - Portalekuan (trianako plazatxoan).

“**Konfitteruena**” - Halcon bidaiak dagoen lekuan.



Gehiago ere bazeuden, baina txikiak ziren eta gerraosterako desagertu egin ziren. Txokolate lantegi handiena Zahor izan zen eta gaur egun ere martxan dihardu “NatraZahor” izenarekin. Oñatirentzat lantegi garrantzitsua izan da. XX. mendean sortu zen eta orain Egaña okindegia dagoen lekuan aurkitzen zen. Urte batzuk beranduago handitu zen eta Berezaio auzora pasatu zen; orain dagoen leku berera. Oñatin beranduen sortu den txokolate-lantegia izan da, baina gaur egun ere, izena modatuta, baina irauten du.

